

Hegaldi luzeagoa nola kausi ?

Hiztegia

hegal / hego

hegaldi

hegaldatu

hegaldun

Azalpena

Muntatu diren bi hegazkinekin entseguak eginen dira jostalekuan. Ondotik hegaldiak neurtuko dira (zein hegazkin den urrunenik joaten eta zergatik...).

Galdea : *Zergatik hegazkin hau bestea baino urrunago doa ?*

- Utz haurrak bakarka edo taldeka galdeari erantzutera eta hipotesien egitera.
- Hipotesiak landuko dituzte eta egiaztatuko muntaia berri batzuk asmatuz.
- Esperientziak eta ondorioak bilduko dira eta galdeari erantzunen zaio : *Zer egin beraz teknikaren hobetzeko ?*
- Aitzineko erakaspina eta oharrak kontuan hartuz, hegazkin berria eginen da eta jostalekuan entseatu.
- Hegazkin berriaren prototipoaren marrazten saiatuko dira haurrak.

Abiapuntua

Egin diren bi hegazkinetarik bat bestea baino urrunago doa. Zergatik ?

Hipotesiak

Utzi haurrak hipotesien asmatzera.

Ikasi dutenetik abiatuz, saiatuko dira oraino luzeago hegaldak daitekeen prototipo berri baten definitzera.

Egiaztatuko duen jarduera

Muntaia berri bat eginen dute eta ondotik entseguak.

Denen buru zer ?

Prototipo berri hori ikasgela osoak ikusi du. Haur bakoitza saiatuko da elkarrekin asmatu duten prototipoaren muntaia urratsez-urrats marrazten. Zer aitzinamendu dakarren ikertuko da.